16. artikulua.- Lagundutako finantzaketa.

Programa hau % 50ean Eskualde Garapenerako Europar Funtsak (FEDER) finantzatuta dago.

17. artikulua.- Eskabideen gaineko erabakia.

Deialdiko baldintzaren bat betetzen ez duelako, diruz lagundu nahi dadin jarduera diruz lagundu ezin daitekeelako edo Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuko teknikarien iritziz proiektu horiek Ekonomia Zuzendaritzak aurten kudeatutako beste laguntza batzuei hobeto egokitzen zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako foru dekretu honetan arautuko dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten enpresen proiektuak dagokion laguntza programan aurkeztu ahal izango dira.

18. artikulua.- Azken klausula.

Foru Dekretu honetan xedatutako prozedura Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/97 Foru Arauak eta Dirulaguntzari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak dirulaguntzei buruz xedatutakoaren mende egongo da.

Artículo 16.- Cofinanciación.

Este programa está cofinanciado por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER) con una tasa de cofinanciación del 50%.

Artículo 17.- Adaptación de las solicitudes.

Aquellos proyectos presentados por empresas que no puedan acogerse a las subvenciones reguladas en el presente Decreto, bien por no cumplir alguno de los requisitos del mismo, bien porque los conceptos para los que se solicita la subvención no sean subvencionables o bien porque a juicio de los técnicos del Servicio de Promoción Económica y Empleo se adapten mejor a las características de otros programas de ayudas gestionados por la Dirección de Economía para el presente ejercicio, y que puedan acogerse a los mismos, se podrán trasladar al correspondiente Programa de Ayudas.

Artículo 18.- Cláusula final

El procedimiento establecido en el presente Decreto Foral queda supeditado a las disposiciones que en materia de subvenciones regula la Norma Foral 3/97 de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava y la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

*Foru Aginduak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**1907**

**106/2008 FORU AGINDUA, martxoaren 14koa. Honen bidez, behin betiko onarpena ematen zaio Legutianoko udal planeamenduaren ordezko arauen xedapen aldaketari. Aldaketa hau OD-R2 zonari dagokio (Legutianoko "La Magdalena" zabalguneko bizitegietarako eremuan.**

I.- AURREKARIAK.

Lehenengoa.- 2007ko maiatzaren 4an, Legutianoko Udalak ordezko arauen xedapen aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espedientea hilabetez jendaurrean jartzea ere. Honela eman zen horren berri: 2007ko maiatzaren 23ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuz (62. zenbakia), 2007ko ekainaren 28ko "Diario de Noticias" egunkarian argitaratuz, eta udaletxeko iragarki taulan jarriz.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalak, 2007ko irailaren 12ko bilkuran, espedienteari behin-behineko onarpena ematea erabaki zuen, eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpena eman ziezaioten. Espediente horri 2008ko urtarrilaren 29an eman zioten sarrera Foru Aldundian.

Hirugarrena.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Arabako Planeamendu Atalak aldeko iritzia agertu zuen abenduaren 17ko 8/2007 bilkuran.

Laugarrena.- Legutianoko Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali zion espedientea (sarrera eguna: 2008ko urtarrilaren 29a), hala bazegokion, behin betiko onar zezan.

Bosgarrena.- Era berean, Arabako Hirigintza Batzordeak txostena egin zuen espedienteari buruz martxoaren 12an egindako 2/008 bilkuran, Diputatuen Kontseiluak abenduaren 14an onartutako 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Espedientea Legutianoko Udalak sustatu du, eta honako helburua dauka: eraikinen estalkiak lauak edo, gehienez, azaleraren %15ekoa hartzen duten terrazak izateko baimena ematea. Horretarako, 140. artikuluaren 5. paragrafoa aldatzen da. Ez dira aldatzen ez etxebizitzen dentsitate garbia ezta sektoreko gehieneko eraikigarritasuna ere.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**1907**

**ORDEN FORAL 106/2008, de 14 de marzo, de aprobación definitiva de la modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Legutiano, referida a la zona OD-R2 Zona Residencial "Ensanche de la Magdalena" en Legutiano.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 4 de mayo de 2007, el Ayuntamiento de Legutiano acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava nº 62, de 23 de mayo de 2007, en el Periódico Diario de Noticias de 28 de junio de 2007 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna relativa al nº de plantas, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 12 de septiembre de 2007 a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava, para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 29 de enero de 2008.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, el expediente fue informado favorablemente por la Sección de Planeamiento de Álava de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 8/2007, de fecha 17 de diciembre.

Cuarto.- El Ayuntamiento de Legutiano remitió el expediente a la Diputación Foral de Álava, para su aprobación definitiva, si procediese, donde tuvo entrada el día 29 de enero de 2008.

Quinto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 2/2008, de 12 de marzo.

FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente, promovido por el Ayuntamiento de Legutiano, tiene por objeto autorizar que las cubiertas de los edificios puedan ser planas o terrazas hasta en un 15% de su superficie. Para ello se modifica el apartado 5 del art. 140. No se modifican ni la densidad neta de viviendas por hectárea ni la edificabilidad máxima del Sector.

Bigarrena.- Ekimenaren oinarria eremuaren antolamendu egokiagoa egitea da, alturen irizpide orokorra aldatu gabe eta inguruetan antzeko ezaugarriak dituzten eraikinak daudela kontuan hartzea; proposamen horrek, beraz, ez du aldatuko Legutianoko herriko paisaia. Bestalde, eraikinak bertako topografiara egokitu daitezen, zonaldean dauden aldapa handiek gainazalei egin diezaieketen eragozpena saihestu da.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak abenduaren 17an egindako 8/2007 bilkuran ez du inolako trabarik jarri, lotesleak diren alderdietan, espedientea aurrera eramateko.

Laugarrena.- Espedienteak baldintza material guztiak betetzen ditu eta izapidetu egin da Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90. artikuluaren arabera.

Horregatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Behin betiko onarpena ematen zaio Legutianoko udal planeamenduaren ordezko arauen xedapen aldaketari. Aldaketa hau OD-R2 zonari dagokio (Legutianoko "La Magdalena zabalguneko bizitegietarako eremuan).

Bigarrena.- Honako foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarren.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salaren aurrean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 17a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

### 140. ARTIKULUAREN 5.5. PARAGRAFOAREN IDAZKETA BERRIA, "ERAIKITZEKO PARAMETROAK. ESTALKIA", "LEGUTIANOKO LA MAGDALENA ZABALGUNEKO BIZITEGIETARAKO OD-R2" ZONARI DAGOKIONA

Estalkia teilazkoa izango da, %20 eta %60 arteko maldako bi isuri edo gehiagokoa. Hegalak lerrokadurekiko horizontalak eta gailurrak, berriz, horiekiko paraleloak izanik.

Nolanahi ere, estalkiaren azaleraren %15 laua edo terraza izan daiteke.

Segunda.- La iniciativa se fundamenta en que ello supone una mejor ordenación del ámbito sin alterar el criterio general de mantener alturas considerablemente moderadas y en la actual existencia en las zonas contiguas, de edificaciones con similares características, por lo que la propuesta no supondrá alterar el paisaje urbano existente en Legutiano. También se evita que dichas superficies quedaran invalidadas por las elevadas pendientes existentes en la zona, para que los edificios puedan amoldarse a la topografía existente.

Tercera.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco 8/2007 de 17 de diciembre no ha puesto objeción al expediente en los aspectos en que su informe es vinculante.

Cuarta.- El expediente cumple los requisitos necesarios de carácter material y ha sido tramitado según lo dispuesto en el art. 90 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Legutiano, referente a la zona OD-R2 zona residencial "Ensanche de la Magdalena" en Legutiano.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 17 de marzo de 2008.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

### NUEVA REDACCIÓN DEL APARTADO 5.5 "PARÁMETROS EDIFICATORIOS. CUBIERTA" DEL ART. 140 "ZONA RESIDENCIAL ENSANCHE DE LA MAGDALENA – OD – R2 ÁREA DE LEGUTIANO"

La cubierta será de teja, inclinada a dos o más aguas con pendientes comprendidas entre el 20% y el 60%, con aleros horizontales siguiendo las alineaciones y gallures o cumbreras paralelas a éstas.

No obstante, se autorizará que un 15% de la superficie de cubierta sea cubierta plana o terraza.

## NEKAZARITZA SAILA

**1942**

**111/2008 FORU AGINDUA, martxoaren 18koa. Honen bidez, I., II., IV., V., VI. eta VII. kudeaketa unitateetako ehiza-esparruetan orkatza (*Capreolus capreolus*) harrapatzeko araudia onartzen da.**

Ekainaren 26ko 602/2007 Foru Aginduaren 2.C.3 artikuluak Arabako Lurralde Historikoan 2007/2008an indarrean izango diren ehiza-garaiak eta debeku-garaiak xedatzen ditu. Hori eta orkatzaren (Capreolus capreolus) kudeaketarako 2008ko plana kontuan izanik, egoki jotzen da artikulu horretan aipatzen den araudia, orkatza harrapatzeari buruzkoa, egitea.

Horregatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

**1942**

**ORDEN FORAL número 111/08 de 18 de marzo por la que se aprueba la normativa reguladora de la caza del corzo (*Capreolus capreolus*) en los Cotos de caza de las Unidades de Gestión I, II, IV, V, VI y VII.**

De acuerdo con el artículo 2.C.3. de la Orden Foral número 602/2007 de fecha 26 de Junio, por la que se fijaban los períodos hábiles de caza así como las vedas especiales en el Territorio Histórico de Álava durante la temporada 2007/2008, y teniendo en cuenta el Plan de Gestión del corzo del año 2008, procede establecer la normativa específica a que hace referencia el citado artículo para la caza del corzo.

En su virtud, y haciendo uso de las facultades que me competen,